



## **EUSKARALDIA ARIKETA SOZIALAREN 2. EDIZIOA (2019-2020)**

### **Ekimenaren oinarrizko aurkezpena parte diren eragileei**

(Behin behineko zirriborroa)

#### **SARRERA**

**Euskaraldia: 11 egun euskaraz** lan ildo luze baten lehen mugarri nagusia izan da. Hizkuntza-ohituren aldaketa ez da egun batetik bestera gertatzen, ezta hamaika egunetan ere. 2017ko maiatzean dinamika berria aurkeztu genuenean, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean gauzatu dugun ariketa sozialaren ostean beste batzuk heltzea aurreikusten genuen. Heldu da 2019a, eta hurrengo ediziorako landu dugun zirriborroa aurkeztuko dugu datozen orrialdeetan.

Txosten honetan jasotzen denak bide luzea izan du. 2018ko martxoan hasi ginen edizio berria irudikatzen, eta soziolinguistikan zein komunikazioan adituak diren kide askok hartu dute parte lanketan. Dokumentuan hezurdura nagusia bildu dugu, eta herri batzorde, entitate zein sustatzaile sareko eragileen ekarpenak jaso ostean, proposamen garatua aurtengo udaberrian aurkeztuko dugu. Ondorengo ataletan banatu dugu txostena:

- ✓ Sarrera
- ✓ 2018ko Euskaraldian ikasitakoa
- ✓ Euskaraldiaren ezaugarri nagusiak
- ✓ Bigarren edizioaren ezaugarri nagusiak
- ✓ Bigarren edizioko ariketa
- ✓ Zenbait ohar entitateen eta norbanakoen parte hartzeari buruz
- ✓ Geratzeko urratsak entitateetan
- ✓ Kronograma: mugarri nagusiak
- ✓ Funtzio banaketa
- ✓ Hurrengo pausoak ekimenaren definizio lanean

## 2018ko EUSKARALDIAN IKASITAKOAK

Hamaika egunetako ariketak herritarren eguneroko hizkuntza-ohituretan nolako eragina izan duen aztertzen ari gara, eta udan jasoko ditugu ikerketaren emaitzak (hirugarren galdetegia martxoan zabalduko da). Edonola ere, aurrera begirako lanean kontuan hartu beharreko hiru lorpen nagusi identifikatu ditugu jadanik, ekimenaren hiru ezaugarri garrantzitsu: parte hartze handia, Euskal Herri mailako elkarlana (guztientzako egingarria izan dena) eta hizkuntza-jokabide berriak gizarteratzea.

### 1. Parte hartzea

Ekimenak harrera ona izan du herritarren artean eta horren erakusgarri dira parte hartze datuak. 400 udalerrri (herri batzordeak gidari), 200 entitate sustatzaile plano orokorrean, eta 225.000 *ahobizi* eta *belarriprest* aktibatu dira. Zilegitasun soziala izan du Euskaraldiak eta olatuak pertsona asko bere hizkuntza-ohiturei buruz gogoeta egitera bultzatu ditu.

### 2. Elkarlana eta hedapena

Muga geografiko eta administratiboak gainditu ditu Euskaraldiak eta Euskal Herri osoan egin da, alde guztietako eragileek eta instituzioek hartu dute parte. Lankidetzaz bide berriak zabaldu dira euskalgintzako gizarte eragileen, instituzio publikoen eta bestelako entitateen artean; lankidetzaz hori, gainera, tokian tokiko batzordeetan zein Euskal Herriko koordinazio mahaian gauzatu da. Ekimena moldagarria izan da eremu soziolinguistiko desberdinen beharrei erantzuteko, eta horrek ahalbidetu du Euskal Herri osoan gauzatzea.

### 3. Arau soziala

Hiru aurreiritzi gainditu (gainditzien hasi) eta hiru arau berri gizarteratu (gizarteratzen hasi) ditu Euskaraldiak:

- Lehen hitza euskaraz egitea: “Ez badakigu ondoko kidea euskalduna den edo ez, ez da komeni euskaraz egitea” → “Ondo dago lehen hitza euskaraz egitea besteak euskaraz ulertzen ote duen jakiteko.”
- Elkarrizketa elebidunak izatea: “Lagunak erdaraz egiten badizu, erdaraz egin dezazun nahi duelako da, eta erdaraz erantzutea da normala dena” → “Lagunak euskara ulertzen badu, euskaraz egin dezakegu, berak erdaraz hitz eginda ere.”
- Ezagutza txikiko eremuetan euskaraz egitea: “Inguru erdaldunetan gaizki ikusia dago euskaraz egitea” → “Elkarrizketan parte hartzen dutenen arteko komunikazioa posible bada, euskaraz egin daiteke ingurua edozein dela ere.”

Aurtengo lorpenak, edonola ere, urrats esanguratsuak izan dira, baina lehenengoak. Herritar gehiagorengana heldu, gogoeta eragin eta aktibatze beharra dugu; elkarlanean jarraitu behar dugu aldaketak probokatuko baditugu; arau sozial berriak gizarte osoan txertatzeko bide luzea dugu oraindik. Beraz, hiru ezaugarri hauek edizio berrian txertatzea eta Euskaraldiko proposamenek parte hartze handia, Euskal Herri mailako elkarlana eta hizkuntza arauen aldaketa bideratzea garrantzitsua da.



## EUSKARALDIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, **gizartearen gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua**. Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburua gure hizkuntza ohiturak aldatuz euskararen erabilera handitzea da, **gutxieneko baldintza euskara ulertzea** izanik. **Helduen aktibazioa** du giltzarri.

Euskaraldia **ariketa** da, baina ez da ariketak irauten duen egunetan soilik gauzatzen. Ariketaren helburua, hizkuntza-ohiturak aldatzeko urrats esanguratsuek eman eta herritarrek tresna berriak eskura izatea da. Baina ariketa eraginkortasunez egin ahal izateko, beharrezkoa da aldeaz aurretik lan batzuk egin eta bidea irekitzea. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egin dugun ariketa 2017an hasi ginen prestatzen, eta aurretik hainbat aktibazio dinamika gauzatu ziren Euskal Herriko hainbat txokotan.

Beraz, **Euskaraldiari buruz ari garenean, ariketaz gain aurreko eta osteko prozesu osoa hartu behar dugu kontuan**: herri batzordeak osatu eta indartzea, herritarrak prestatzea pedagogia lana eginda, entitateek behar diren neurriak hartzeko prozesuak bideratzea, eta abar.

Horrekin lotuta, 2017tik askotan esan izan den bezala, Euskaraldiak **norbanakoen zein entitateen urratsak** sustatu nahi ditu.

Ekimen masiboa da Euskaraldia, Euskal Herriko eremu askotan eta ezaugarri soziolinguistiko desberdinetakoetan aldi berean gertatzen den ekimena. Oinarri bateratua izan arren, errealitate linguistiko eta demografikoetara **moldagarria da**. Era berean, eremu guzti horietan **progresibitateko aukera** eman behar du.

## BIGARREN EDIZIOAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Hona hemen, esaldi batean, Euskaraldiaren bigarren edizioaren deskribapena: **2019-2020 zikloan gauzatuko den edizioan, Euskaraldia norbanakoen eta entitateen hizkuntza praktika berriak bultzatzeko ekimena izango da, *belarriprest* eta *ahobizi* dinamikan oinarrituko dena.**

Edizio berriak ondorengo oinarriak izango ditu.

### 1. *Ahobizi* eta *belarriprest* dinamika

*Ahobizi* eta *belarriprest* dinamika da Euskaraldia ariketaren oinarri nagusia. Euskara dakitenek ulertzen duten guztiekin euskarari eustea, eta ulertzen dutenek kideei beraiekin euskaraz egiteko eskatzea da mekanika. Herritarrek rol bat ala bestea aukeratu beharko dute. Rolek ez dute ezagutza maila adierazten, ariketa egiteko modua baizik.

## 2. Lurraldea

Ekimena Euskal Herri osoan gauzatuko da, hala nahi duten herrietan eta entitateetan. Bi planotan antolatuko dugu: batetik, herri eta entitateetan gauzatuko diren lanak, eta, bestetik, Euskal Herri osoko ekimena. 2017-2018ko edizioa hartuko dugu eredu.

## 3. Entitateak eta herritarrak batera

2017an herritarren edizioa eta entitateena txandakatzea aurreikusten bagenuen ere, lehen edizioak biak elkartzea interesgarriagoa eta emankorragoa dela erakutsi digu. 2018an herritarrak izan dira lehentasuna, baina entitateek egin duten sustapen lana lagungarria izan da herritarrek ekimenaren berri izan zein ariketa lasaitasun eta konfiantza gehiagorekin egiteko.

**Bigarren edizioan, beraz, herritarrak eta mota guztietako entitateak** (erakunde publikoak, enpresa pribatuak, elkarte txiki zein handiak, eta abar) **izango dira parte hartzaile.**

## 4. Moldagarritasuna

Oinarri orokorra izango du ekimenak, baina egoeretara moldagarria izango da. Bi parte hartze mota egongo dira, eta lanerako lehentasuna non jarri herri batzorde eta entitateek aukeratuko dute. Pedagogia eta komunikazio lanei dagokienez ere, beren beharretara ekartzeko tarteak izango dute herri eta entitateek.

## 5. Bi urteko zikloa

Bigarren edizioa 2019 eta 2020 artean gauzatuko dugu. **Ariketa soziala 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean** izango da, beraz, 15 eguneko iraupena izango du. Lehen edizioan baino lau egun gehiago izango dira.

Lehen esan bezala, ariketara behar bezala heltzeko **2019an bertan hasiko gara lanean.** Bi urteko zikloak hainbat aukera ematen ditu.

- ✓ Herri batzordeetan ari diren kideek erritmo egokia izan dezaten. Herrietara zabaldu dugun galdetegian jasotako erantzunen arabera, urteroko dinamika karga handiegia dela adierazi dute askok, eta herrian bestelako lanak ere egin nahi dituzte.
- ✓ Parte hartzaileek motibazioz gauza dezaten ariketa. Ahalik eta herritar gehien aktibatu nahi ditugu beren hizkuntza-ohiturak alda ditzaten, eta bi urteko tarteak egokia izan liteke txinparta piztu eta herritarrek ariketa egitea erabaki dezaten.
- ✓ Entitateek 2020ko azaroan ariketa egiteko aurre lana egin dezaten. Erabakiak hartu eta aritzeko modu berriak martxan jartzeko denbora behar da entitateetan. Hortaz, 2019an entitateak neurriak hartzeari ekingo diote.
- ✓ Edizio bakoitzaren azterketa sakona eginda hurrengoan ekarpen berriak txertatzeko.

2018ko azaro eta abenduan gauzatu dugun ariketak ere bi urteko zikloa izan du.

## 6. Progresibotasuna

Lehen ediziotik bigarrenera garapena izango du Euskaraldiak. Besteak beste, entitateak parte hartzaile izango dira, batzuek 2018an egin duten sustapen lan horretatik aurrera urratsak eman eta sustatzaile izan ez direnek ere beren eremuetako hizkuntza-ohituretan aldaketak eragin ditzaten. Gainera, ariketak egun gehiago izango ditu. Era berean, progresibotasuna modu askotan gauza daiteke herri eta entitateetan, baita norbanakoan ere:

- ✓ 2018an belarriprest izan zirenak ahobizi izan daitezke (eta alderantziz).
- ✓ Entitateekin lan egin ez den herrietan lan egin daiteke.
- ✓ Entitateetan behar eta ahal beste eremu edo taldetan egin daiteke ariketa, eta denboran kopuruak handitzen joan daitezke.
- ✓ Eta abar.

### **BIGARREN EDIZIOKO ARIKETA**

Bi urteko zikloan, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean gauzatuko da hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala. Euskal Herri osoan egitea sustatuko da, eta tokian tokiko herri batzordeek erabakiko dute hori. Era berean, Euskal Herri osoko mota guztietako entitateei luzatuko zaie parte hartzeko deia.

**Bi parte hartzaile egongo dira: norbanakoak eta entitateak** (2018an entitateak sustatzaile izan dira soilik, ez parte hartzaile).

#### **Norbanakoak**

Euskara ulertzen duten 16 urtetik gorako herritarrak izan daitezke parte hartzaile. Aurten bezala, *ahobizi* zein *belarriprest* gisa gauzatu ahal izango dute ariketa. Honi dagokionez, ez da aldaketa handirik aurreikusten. Rolak gizartean behar bezala zabaltzeko lana egiten jarraitu beharko dugu, baita herritarrak prestatzeko ere.

Norbanakoekin egingo dugun lanak lehen edizioko garrantzia eta dimentsioa izango ditu, dagozkion garapen eta moldaketekin (aurrerago aurkeztuko ditugu). Dokumentu honetan, ordea, bigarren lan ildoaren berritasunak jasotzeari (entitateen parte hartzea) eman diogu lehentasuna, herri batzordeentzat eta sustatzaileentzat informazio berria delakoan.

#### **Entitateak**

Mota guztietako entitateek hartu ahal izango dute parte: erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, kooperatibak, elkarteak, kultur eta kirol taldeak, eta abar (norbanakoak biltzen dituen talde egituratua). Tokian tokikoak, eskualde mailakoak, lurralde batekoak zein Euskal Herri osokoak.

Helburu nagusia entitate hauen baitako harremanetan euskararen erabilera handitzea da. Entitatearen baitako dinamikan euskaraz mintzatzeko gai diren hiztun taldeak identifikatuta, hizkuntza-ohiturak euskararen mesedetan alda ditzaten proposatuko zaie. Horretarako, eremu horietako kide guztiek euskara ulertzeko gai izan behar dute (entitate barruko eremu zehatzei buruz ari gara, sailak edo departamenduak izan daitezke). Ariketan parte hartzeko ez dute entitateko kide guzti-guztiek euskara ulertu behar, baina bai bere baitako sail edo azpi-talde bateko kide guzti-guztiek, gutxienez.

Entitateekiko harremanetan erabiltzaile eta bezeroei euskaraz aritzeko aukerak zabaltzea ere proposatuko zaie parte hartzaileei. Honetarako guztirako, entitateen parte hartzeak zuzendaritzaren eta entitateko kideen inplikazioa eta parte hartze aktiboa eskatuko ditu.

### **Entitateen parte hartzearen ezaugarriak**

Izena ematen duten entitateek hiru egiteko nagusi izango dituzte, hirurak bete beharrekoak. Udaberriko proposamen xeheagoan zehatzago definituko dira egitekoak; jarraian ageri diren terminologiak behin-behinekoak dira.

1. Ekimenaren **sustapen lana**. Beren kideei (langile, bezero zein bazkide) ekimenean parte hartzeko proposamena egingo diete, eta horretarako baldintza egokiak eskainiko dizkiete (txapak, prestakuntza eta abar).
2. **Entitateko ulermenaren diagnosis**. Elkartea, enpresa edo erakundea osatzen duten kide guztien euskara ezagutza aztertuko da, gutxienez euskara ulertzen duten kideak eta hauek osatzen dituzten espazioak zeintzuk diren ezagutzeko.
3. **Belarriprest eremuen identifikazioa eta bultzada**. Entitateen espazioetan (fisikoak zein ez) kideen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko edo eta herritarren eta entitateen arteko hizkuntza-harremanak aldatzeko pausoak emango dira. Datozen lerroetan azalduko da hirugarren egiteko hau.

**Belarriprest eremua**<sup>1</sup>, entitate batetako kide multzo batek osatzen duen taldea da, non kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten. Eremua ez da entitate osoa, entitate hori osatzen duten azpi multzoak baizik; izan daiteke udaletxe baten administrazio saila, kirol klub baten talde zehatz bat, aisialdi talde baten begirale taldea edo banketxe handi baten bulego bat, esaterako.

Belarriprest eremuen dinamika, entitate bakoitzaren errealitate soziolinguistikora moldagarria izango da. **Entitateen ohiko jardunean**, gainera, **bi esparru** bereiz daitezke: **herritarrekin harremanetan dagoena** (kanpo harremanak, hala nola prentsaurrekoak, ekitaldiak, harrerak, zerbitzuak eta abar) **eta barne dinamika** (kideen arteko barne harremanak).

---

<sup>1</sup>Marko teorikoaren dokumentuan ageri da informazio zehatzagoa.

**Barne harremani dagokienez**, dinamika hau gauzatzeko, entitatean euskara ulertzen duten eta elkarrekin aritzeko ohiko dinamika duten kidez osatutako talde bat egon beharko da gutxienez. Entitateko ulermenaren diagnostia egitean jakingo dute entitateek horretarako baldintza egokirik duten ala ez.

Ondorengoak izango dira urratsak:

- Behin diagnostia eginda eta balizko *belarriprest eremuak* identifikatuta, *eremu* horiek osatzen dituzten kideei ariketa gauzatzeko proposamena egingo die zuzendaritzak (edo dagokion ardura sailak).
- Parte hartzea borondatezkoa izango da, eta baiezkoa ematen duten *eremuen* kasuan, entitateak txapak eta prestakuntza eskainiko dizkie.
- Entitateek ariketa gauzatzeko duten *ahobizi eta belarriprest eremuak (ikus beherago)* identifikatu, beraien berri eman eta jarraipena egingo diete.

Esan bezala, *belarriprest* eta *ahobizi eremuei* dagokienez, parte hartzeko *eremu* horietako kideek *ahobizi* zein *belarriprest* izatea aukeratu beharko dute. Eta beraien erabakiaren arabera, *belarriprest* edo *ahobizi talde* izango dira.

- ***Belarriprest eremua***. Talde bateko kide guztiak izango dira *belarriprest* eta horren berri emango dute. Taldeko kideen %20 baino gutxiago *ahobizi* izango dira.
- ***Ahobizi eremua***<sup>2</sup>. Taldeko kide guztiak dira *ahobizi* edo *belarriprest*, baina gutxienez %20 *ahobizi* dira. Horren berri emango da. *Ahobizi eremua* ez da, beraz, kide guztiak *ahobizi* diren jende multzoa.

Ekimenaren helburua, entitateetan gaur egun dagoen egoeratik abiatuta aurrera pausoak ematea da. Badakigu, ordea, entitate askotan gaur egun ez dagoela balizko *belarriprest eremurik* (kide guztiek euskara ulertzen duten talderik ez dutelako).

Kasu horietan, entitateek gutxienez urrats berri bat eman dezaten, **herritarrekiko harreman espazioetan** *belarriprest* eta *ahobizi* dinamika gauzatzeko eskatuko zaie izena ematen duten entitateei.

Herritarrekin harremanetarako dituzten espazio fisikoetan uneoro herritarrek entitateko kideren batekin euskaraz egin ahal izateko neurriak hartuko dituzte eta, beraz, euskara ulertzen duten kideak egongo dira ariketak irauten duen egunetan. Besteak beste, harrera guneak, dendak eta tabernak izan daitezke, eta bestelako eremuetan ariketa gauzatzeko bideak aztertuko dira datozen asteetan (kirol taldeetan eta hedabideetan, esaterako). Era berean, jendaurreko komunikazio, prentsaurreko eta ekitaldietan euskarari toki nabarmena eskainiko zaio (gutxienez, erdararen parean).

Adibidea: elikagai denda batean hiru kutxa baldin badaude, gutxienez horietako bat *belarriprest* eremu izendatuko da (aztertzeko dago gune handietan gutxienezkoa portzentajearen arabera zehaztu ala ez). Horrek esan nahi du kutxa horretan lan egiten duen langilea gutxienez *belarriprest* izango dela. Txanda edozein

---

<sup>2</sup>*Belarriprest* eta *ahobizi eremuei* buruzko informazio zehatzagoa, dokumentu honekin batera zabaldu den marko teorikoan ageri da.

dela ere, zerbitzua eskaintzen den ordu guztietan bermatu beharko da herritarrak euskaraz egin ahal izatea.

Modu progresiboan urratsak ematea helburu izanik, **herritarrekiko harremanetan euskaraz artatzea jadanik bermatzen dutenen kasuan, talde gisa parte hartuko duten pertsona multzoak izateak izan beharko luke helburu.**

**Entitateen parte hartzea dela eta, laburpena taulan:**

<b>BELARRIPREST EREMUAK entitateen jardun esparru desberdinetan</b>	
<b>Herritarrekiko harremanak</b> (harrera, lankidetzak, ekitaldiak, prentsaurrekoak eta abar)	<b>Barne dinamikak</b> (entitateko kideen artekoak)
Ulermenaren diagnostia eginda jakingo dute bi esparruetan egin dezaketean ariketa. Bi kasuetan, entitateak ariketa posible izateko baldintza egokiak eta baliabideak bermatu beharko ditu.	
<b>Baldintzak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrei euskaraz aritzea bermatuko dien kide bat gutxienez egotea uneoro.</li> <li>• Jendaurreko ekitaldi eta lanetan euskararen presentzia bermatzea.</li> </ul>	<b>Baldintzak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gutxienez guztiek euskara ulertzen duten talde bat egotea entitatean.</li> <li>• Talde horretako kideek ariketa elkarrekin egitea erabakitzea, eremu gisa.</li> <li>• Belarriprest eremu edo ahobizi eremu izango diren erabakitzea, eta ahobizi edo belarriprest gisa izena ematea.</li> <li>• Hamabost egunez ariketa egitea.</li> </ul>

## **ZENBAIT OHAR ENTITATEEN ETA NORBANAKOEN PARTE HARTZEARI BURUZ**

- Bien ariketak lotuta egongo dira. Entitate bateko *taldean edo eremu fisikoan* parte hartzen ari den norbanakoa *belarriprest* bada, edo harreran dagoelako *belarriprest* gisa jotatzen badu, hala izango da bere gainontzeko esparru guztietan ere. Aldiz, *eremu* izendatutako batean *ahobizi* gisa ari bada, bere eguneroko jardunean *ahobizi* izango da 15 egunetan.
- Entitateek zein norbanakoek eman beharko dute izena ekimenean: lehenik entitateek, eta aurrerago ariketan parte hartuko duten pertsonak.
- Identifikazio ikurrak egongo dira norbanako zein entitateentzat. Aurten egin bezala, ikur horiek ariketak irauten duen egunetarako izango dira.
- Entitateetan ezagutzaren eta ulermenaren diagnostia egiteko tresna eskainiko da koordinaziotik.
- Entitateekiko harremanetan herritarrek euskaraz aritzea bermatu ahal izateko, entitateei beren kideak *belarriprest* izateko bidean urratsak ematen laguntzeko aukerak aztertzea interesgarria litzateke.



- Entitateak sektore mota askotakoak direla kontuan izanda, sektorearen arabera neurri eta jarduteko modu desberdinak proposatu ditzake koordinazioak.

## **GERATZEKO URRATSAK ENTITATEETAN**

Izen-ematea ariketa egitera mugatzen den arren (aurten norbanakoek egin bezala), suposatzen da ariketa egiteko nahia ostean urrats berriak denboran mantentzeko dela. Entitateei hasieratik geratzeko neurriak eskatuz gero, askok atzera egin eta izenik ez emateko arriskua egongo litzateke. Baina ariketara soilik mugatuz gero, anekdotan geratzeko arriskua ere badago.

Entitateei ekimenaren informazioa ematean, bi rolak aurkezteaz gain, denboran urratsak mantentzeko beharrari buruzko mezua transmitituko zaie. Are gehiago, aurkezpenaren unetik, izena ematean, ariketarako prestatzean, ariketa egunetan zein osteko egunetan gogoeta bat egitea eskatuko diegu (hau da, prozesu osoan): beren eremuan aztertzea edo planteatzea ematen dituzten urratsak (kanpo harremanetan zein barneko taldeetan) geratzeko izan daitezkeen edo zer beharko luketen horretarako.

## **KRONOGRAMA: MUGARRI NAGUSIAK**

Lehenago aipatu bezala, 2020ko udazkenean gertatuko den ariketak hilabete askoko lana du aurretik. Lan horiek 2019an bertan hasi behar ditugu.

Honakoak dira ekimena aurrera ateratzeko identifikatu ditugun mugarri nagusiak (udaberriko aurkezpenean lan zehatzagoak jasoko dira).

Koloreen esanahia:

- Herri batzordeek egingo dituzten lanak. Morea.
- Koordinazio orokorrak eta herri batzordeek egingo dituzten lanak. Horia.



EKINTZA	2019-01/03	2019-04/06	2019-07/09	2019- 10/12	2020-01/03	2020-04/06	2020-07/09	2020-10/12
Proposamenaren aurkezpena 2018ko sustatzaile orokorreari eta herriei. Ekarpenak jasotzea.								
Bigarren edizioaren barne aurkezpena, kronograma zehatzagoarekin.								
<i>2018ko ikerketaren emaitzak kaleratzea (ez da edizio berriko lana)</i>								
Tokiko entitateen mapak (egoera ezagutu eta norengana jo zehazteko)								
Herri batzordeei prestakuntza								
Pedagogia lana herritarrekin eta entitateekin								
Agerraldia aitzindariekin (entitate gisa parte hartzea erabakitzen duten lehen entitateekin, trakzio lana egin dezaten)				Az.20				
Herritarren kale ekintza (hizkuntza-ohiturak aldatzen ari garela gogoan izateko. Zehaztu gabekoa gaur egun)								
Entitateen izen-ematea								
Entitateetan diagnostikoak ulermena zenbatekoa den jakiteko								
Herritarren izen-ematea								
Ekimena (azaroak 20-abenduak 4)								



## **FUNTZIO BANAKETA**

Euskaraldiaren oinarri garrantzitsuenetako bat eragileen arteko lankidetzeta da. 2017an lehen edizioa proposatu genuenean, herrietan euskalgintzako gizarte eragileak, udaletako euskara zerbitzuak, euskaltzale norbanakoak eta bestelako entitateak elkarrekin aritzeari lehentasuna eman genion. Plano orokorrean ere lan egiteko eredu hori abiatu genuen.

Bigarren edizioan ere bide beretik jarraitzea proposatzen dugu: lankidetzeta indartzea, eta funtzio banaketa argi eta antolatuekin jarraitzea.

Koordinazio Orokorrean ari garen eragileok herri batzordeek lanerako baliatuko dituzten tresnak sortzen eta irizpideak definitzen jarraituko dugu. Era berean, tokian tokikoak ez diren entitateak aktibatzeke egingo dugu lan.

Herri batzordeetako kideen arteko funtzio banaketari dagokionez, ekimena zehatzean definitzea lehentasunezkoa da ardurak eta funtzioak argitu eta banatzeko. Edonola ere, lidergo partekatua garrantzitsua dela azpimarratu nahi dugu. Aurtengo ariketan eragileen arteko lankidetzeta eta funtzio banaketa adostua izan den kasuetan herritarren aktibazioa nabarmena izan da.

Norbanakoen ariketarako definitu genuen funtzio banaketa oinarri izanda, koordinazioko kideen hurrengo urratsetako bat izango da entitateen ildorako gauza bera egitea. Lan hori hurrengo topaketatan partekatzeke moduan egongo gara.

## **HURRENGO PAUSOAK EKIMENAREN DEFINIZIO LANEAN**

Euskaraldiaren bigarren edizioaren definizio fasean gaude oraindik. Otsailean lehen edizioa antolatzen aritu diren eragileekin aurkezpenak egingo ditugu: euskalgintzako gizarte eragileak, erakunde publikoak, herri batzordeetako kideak eta sustatzaile izan diren mota guztietako entitateak.

Aurkezpen horietan, testu honetan jasotzen den edukia azaldu eta lanak zehaztu edo garatzeko ekarpenak jasoko ditugu. Biltzen dugun guztiarekin zehaztuko dugu proposamena, maiatzean aurkeztu nahi duguna. Beraz, ordura arte aldaketak egon daitezke.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Euskaltzaleen  
Topagunea

2019ko urtarrilaren 28an.